

## ERRETERIA UDALA

Kultur Aniztasuna, Garapenerako Lankidetzeta eta Giz / Cultura de la Diversidad, Cooperación al Desarrollo

**Espediente zk./Nº Expediente:** 2023SZUZ0043

**Erreg. data/Fecha Reg:** 2023/09/18

**Erreg. zk. / Nº Registro:** 019154

**Gaia/Asunto:** GURUTZE GORRIA: MAROKOKO LURRIKARA- 2023ko Larrialdietarako dirulaguntza zuzena

**Eskatzailea/Solicitante:** CRUZ ROJA ESPAÑOLA

**NAN(IFK)/DNI(NIF):** Q2866001G

**Kokalekua/Emplazamiento:** ERRETERIA

### DEKRETUA

**Legeak eman dizkidan eskumenez baliatuta, ondoko dekretua eman dut:**

#### AURREKARIAK

Errenteriako Udalak urteak daramatza baliabideak bideratzen garapen bidean dauden herrialdeekin lankidetzan jarduteko.

Aurrekontu-partida horren zati bat premiazko ekintza humanitarioetarako proiektuetara bideratzen garapen bidean dauden herrialdeetan emergentziatzeko egoera bizi duten pertsonen edo sektoreen zuzendurik, azaroaren 17ko 38/2003 Dirulaguntzen Lege Orokorren 22.2 c) artikulua eta Errenteriako Udalaren dirulaguntzak ematea arautzeko udal ordenantzaren (2015eko abuztuaren 10eko GAO) 11.1.c.c1 artikulua xedatutakoari jarraiki.

Irailaren 8an Richter eskalan 6,8 magnitudeko lurrikara batek Marrakech iparraldeko eskualde marokarra astindu zuen. Eskualdetik iristen diren txostenen arabera, 2.862 pertsona baino gehiagok bizia galdu dute, 2.562 pertsona zaurituta daude, eta desagertu diren pertsonen kopurua oraindik ez da ziurra. Milaka etxebizitza eta eraikin publiko erabat suntsiturik geratu dira eta beste hainbatek kalte larriak jasan dituzte.

CRUZ ROJA ESPAÑOLAK, 2023ko irailaren 18an dirulaguntza eskaera bat aurkeztu zuen. Marokoko lurrikarak kaltetutako pertsonen berehalako oinarritzko beharrak asetzea da helburua. Gaur egun, Marrakech, Al Hauz, Chichaoua eta Taraoudanten, lurrikarak gehien eragiten dien lau probintzietan, laguntza humanitarioa behar duten pertsonak dira esku-hartzearen erantzunaren helburu nagusia. Espainiako Gurutze Gorria bere biltegietan eskuragarri dauden artikulua prestatzen hasi da,

### DECRETO

**En uso de las atribuciones que me confiere la Ley vengo a dictar el siguiente decreto:**

#### ANTECEDENTES

El Ayuntamiento de Errenteria lleva años destinando recursos a colaborar con los países en vías de desarrollo.

Una parte de dicha partida presupuestaria se destina a proyectos de acción humanitaria urgente dirigidos a personas o sectores de población que viven una situación de emergencia en los países en vías de desarrollo, con base en lo dispuesto en el artículo 22.2 c) de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y el art. 11.1.c.c1 de la Ordenanza municipal reguladora de la concesión de subvenciones en el Ayuntamiento de Errenteria (B.O.G. de 10 de agosto de 2015)

El pasado 8 de septiembre un terremoto de magnitud 6,8 en la escala Richter sacudió la región septentrional marroquí de Marrakech. Según los informes que llegan de la región, más de 2.862 personas han perdido la vida, 2.562 de personas están heridas, mientras que el número de personas desaparecidas todavía es incierto. Hay miles de viviendas, edificios públicos totalmente destruidos, y otras seriamente dañadas.

Con fecha 18 de septiembre de 2023, CRUZ ROJA ESPAÑOLA presentó una solicitud de subvención. El objetivo es cubrir las necesidades básicas inmediatas de las personas afectadas por el terremoto de Marruecos. Actualmente, el principal grupo objetivo de la respuesta de la intervención son las personas que necesitan urgentemente asistencia humanitaria en las 4 provincias más afectadas por el impacto del terremoto en Marrakech, Al Hauz, Chichaoua y Taraoudant. Cruz



## ERRENTERIA UDALA

Kultur Aniztasuna, Garapenerako Lankidetzeta eta Giz / Cultura de la Diversidad, Cooperación al Desarrollo

lurrikarak jasan ondoren gehien errepikatzen diren beharren arabera, eta Marokoko Ilargierdi Gorriak bere larrialdi-deian zehaztu dituen berehalako beharren arabera. Zehazki, hauek bidaltzeko prestatzen ari da termino orokorretan CRE: 10.000 manta, 2.400 eltxo-sare, 400.000 ura edangarri bihurtzeko pilula, 2.500 sukalde sorta eta 9.000 plastikozko olana. Errenteriako Udalak emandako diru kopuruak material horretatik lote baterako ekarpena egingo du.

Espedientean jaso dira beharrezkoak diren txosten guztiak, dirulaguntza ematearen aldekoak:

- Kultur Aniztasuna, Garapenerako Lankidetzeta eta Giz departamentuko teknikariak 2023eko irailaren 20an emandako txostena.
- Udal Aholkulari Juridikoak 2023ko irailaren 26an oniritzia eman dio dekretu proposamenari.
- Udal Kontu-hartzaileak 2023ko irailaren 26an espedientea fiskalizatu du.

### ZUZENBIDE OINARRIAK

38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntza Orokorrei buruzkoa.

887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, 38/2003 Dirulaguntza Orokorrei buruzko Legearen Erregelamendua.

Errenteriako udalean diru-laguntzak ematea arautzeko udal ordenantza (2015eko abuztuaren 10eko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala -150 zk.-).

Horregatik guztiagatik, Udal honetako Alkateak eskuordetu dizkidan eskumenak baliatuz, eta aholkulari juridikoak espedientean jasotako dekretu-proposamenari emandako adostasunarekin.

Roja Española ha iniciado la preparación de artículos disponibles en sus almacenes de acuerdo a las necesidades más recurrentes tras terremotos, y en función de las necesidades más inmediatas que Media Luna Roja de Marruecos ha ido detallando en su Llamamiento de emergencia. En concreto, CRE está preparando en términos generales el envío de: 10.000 mantas, 2.400 mosquiteras, 400.000 pastillas potabilizadoras de agua, 2.500 sets de cocina y 9.000 lonas de plástico. El Ayuntamiento de Errenteria aportará de este material una cantidad de dinero donado a un lote.

Constan en el expediente todos los informes necesarios, favorables al otorgamiento de la subvención:

- Informe de la técnica de Cultura de la Diversidad, Cooperación al Desarrollo de fecha 20 de septiembre de 2023.
- La Asesora Jurídica ha dado el visto bueno a la propuesta de decreto el 26 de septiembre de 2023.
- La Interventora municipal con fecha de 26 de septiembre de 2023 ha fiscalizado el expediente.


### FUNDAMENTOS DE DERECHO

Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, Reglamento de la Ley 38/2003, General de Subvenciones.

Ordenanza municipal reguladora de la concesión de subvenciones del Ayuntamiento de Errenteria (Boletín Oficial de Gipuzkoa nº 150, de 10 de agosto de 2015).

Por todo ello, en ejercicio de las competencias que me han sido conferidas en virtud de delegación efectuada por la Alcaldía de este Ayuntamiento, y con la conformidad dada por la asesora jurídica a la



## ERRETERIA UDALA

Kultur Aniztasuna, Garapenerako Lankidetzeta eta Giz / Cultura de la Diversidad, Cooperación al Desarrollo

Honen bidez,

### EBATZI DUT

1.- 4.000€-ko dirulaguntza humanitaria ematea CRUZ ROJA ESPAÑOLAK (Q2866001G) aurkeztu duen proiektua finantzatzeko:

Marokoko lurrikarak kaltetutako biztanleen premia-ko beharrei erantzun humanitaria ematea.

2.- 4.000€-ko gastua baimentzea eta xedatzea, indarrean dagoen aurrekontuko 1.1430.481.01.230.20 (7699) partidaren kontura, AD-3802-2023.

3.- Diru-laguntzaren ordainketa horrela egingo da:

- Dirulaguntzaren %80a: 3.200€ dekretu hau ebaztean.

- Dirulaguntzaren %20a: 800€ memoria aurkeztu ostean.

4.- 2024ko irailaren 30era arteko epea ematea dirulaguntzaren zurrizte-dokumentazioa aurkezteko.

a) Diru-laguntza jasoko duen programa edo jardueraren memoria, ordenantzaren 13.3 artikuluan ezarritako ezaugarriak izango dituena. Memoria horrekin batera, gutxienez, ondorengo informazioa aurkeztu beharko da:

b) Proiektua gauzatzeari buruzko txosten teknikoa. Bertan adieraziko dira eginiko aktibitateak, lortutako emaitzak eta azaldutako aldaketa eta zailtasunak.

- Garatutako ekimenaren jasangarritasuna.

- Komunitatearen parte-hartzea.

c) Memoriari ondorengo agiriak atxikiko zaizkio:

propuesta de decreto que consta en el expediente.

Por la presente,

### RESUELVO

1.- Conceder una subvención de 4.000€ a la CRUZ ROJA ESPAÑOLA (Q2866001G) para la financiación del proyecto presentado:

Respuesta humanitaria a las necesidades urgentes de la población afectada por el terremoto de Marruecos.

2.- Autorizar y disponer un gasto de 4.000€ con cargo a la partida 1.1430.481.01.230.20 (7699) del vigente presupuesto, AD-3802-2023.

3.- El abono de la subvención se realizará de la siguiente forma:

- 80% de la subvención: 3.200€ tras aprobarse el presente decreto.

- 20% de la subvención: 800€ tras la presentación de la memoria.

4.- Conceder plazo hasta el día 30 de septiembre de 2024 para presentar la documentación justificativa de la subvención.

a) Memoria detallada del programa o actividad subvencionada, con las características recogidas en el artículo 13.3 de la ordenanza. La citada memoria aportará como mínimo la siguiente información:

b) Informe técnico sobre la ejecución del proyecto, describiendo las actividades realizadas, los resultados conseguidos, los cambios y las dificultades que han surgido.

- Sostenibilidad de la iniciativa desarrollada.

- Participación de la comunidad.

c) A la memoria se tendrá que adjuntar la siguiente documentación:



## ERRETERIA UDALA

Kultur Aniztasuna, Garapenerako Lankidetzeta eta Giz / Cultura de la Diversidad, Cooperación al Desarrollo

- Errenteriako Udalak emaniko diru guztiekin eginiko eragiketa guztietan aplikaturiko kanbio-mota baldin eta erosketa bertan egin duten.

- Memoria ekonomikoa.

- Argazkiak.

d) Zuriketa Guztizko Balantze bidez izango da.

e) Dokumentazio grafikoa (kartelak, programak) edo ikus-entzunezkoa.

5.- Ordenantza arautzailean edo diru-laguntzaren emakidan adierazitako baldintzaren bat ez betetzeak, diru-laguntza berrikustea suposatzen du, eta, hala badagokio, emandako diru kopurua jaistea edo kopuru osoa itzuli beharra ere bai.

Gainera, azaroaren 17ko **38/2003** Diru-laguntzetarako Lege Orokorrean agertzen diren kasuetarako, bidezkoa izango da jasotako diru kopuruak itzuli beharra, baita diru-laguntza ordaintzen den unetik itzulketa egin beharra erabakitzen den data arteko berandutza interesak eskatzea ere.

6.- Udal Aurrekontuaren kargura diru-laguntza jasotzeko, erakunde edo pertsona fisiko onuradunek, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantza eguneratua izatea beharrezkoa izango da, legeak horrela eskatuko balu.

7.- Ebazpen hau jakinaraztea entitate interesatuari eta ezagutaraztea Ogasuna eta Garapen Ekonomikoa Sailari.

8.- Ebazpen hau araudiak dioen bezala argitaratzea.

- Tipo de cambio aplicado en todas las operaciones realizadas con los fondos entregados por el Ayuntamiento de Errenteria en caso de haber realizado la compra en el país.

- Memoria económica.

- Memoria fotográfica.

d) La justificación será mediante Balance Total.

e) Documentación gráfica (carteles, programas) o audiovisual.

5.- El incumplimiento de cualquiera de las obligaciones que se fijan en la ordenanza reguladora o en la concesión de la subvención, supondrá la revisión de la misma y, en su caso, la anulación, disminución o devolución de la cantidad otorgada.

Además, procederá el reintegro de las cantidades percibidas y la exigencia del interés de demora correspondiente desde el momento del pago de la subvención hasta la fecha en que se acuerde la procedencia del reintegro, en los casos que figuran en la Ley **38/2003**, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

6.- Para la percepción de las subvenciones con cargo al Presupuesto Municipal, será requisito por parte de la entidad o persona física beneficiaria, el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social si legalmente así le correspondiera.

7.- Notificar esta resolución a la entidad interesada y ponerla en conocimiento del Departamento de Hacienda y Desarrollo Económico.

8.- Publicar esta resolución tal y como establece la normativa.

Errenterian, sinaduran agertzen den datan

Kultur Aniztasuna, Garapenerako Lankidetzeta eta  
Giza Eskubideetako **ZINEGOTZI DELEGATUA**

Errenteria, en la fecha de la firma

CONCEJALA DELEGADA de Cultura de la  
Diversidad, Cooperación al Desarrollo y Derechos



**ERRETERIA  
UDALA**

Kultur Aniztasuna, Garapenerako Lankidetzeta eta Giz / Cultura de la Diversidad, Cooperación al Desarrollo

Stua/Fdo.: Itsaso Cruz Etxeberria



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESK0b760051b-09d7-481a-8631-5c43b30a470a**

*Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:*

<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06710>

*Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica:* <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06710>

## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

**Titulua / Título:**

2023SZUZ0043-DEKRETUA/DECRETO ()